




Garaian garaiko

ARGIAk bere marka berritu du, eta beronekin batera, aldizkariaren azala.
Erroak mantenduz, irudi modernoagora egokitu nahi izan dugu.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

ORAIN ARTE egindako ibilbide luzeak era-kusten duenez, garaian garaiko lekukoa iza-ten saiatu gara beti. Bai artez eta bai mol-dez. Ahalegin horren emaitza duzu, irakurle, zenbaki honekin batera estreinatu dugun azala, eta beronekin batera, gure iza-tearen ispilutzat jo nahi dugun ikurra. Este-tika, gustuak eta beharrak ere aldatu egiten direlako, taxu modernoagoa duen jantzia

eman nahi izan diogu gure izenari; gure erroak atzean utziko ez dituen itxura berri-tua, aurrekoen arrastoa desegingo ez duen irudi gaurkotua.

Proiektu eta berrikuntza sorta baten atari-koa duzu marka berri hau, aldizkaria bera eta ARGIA-ren izenean plazaratzen diren beste argitalpenak egokitzea, bateratzea hel-duko diren aldaketen lehen urratsa. ■



2008ko urriaren 12a

ARGIA

15

